

5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko legearen eragingarritasun soziala*

LEIRE GOROSTIZA ETXEBERRIA

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko graduduna
Graduada en Derecho por la Universidad de Deusto

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 17/11/2020

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 18/07/2022

Laburpena: Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Lege berriak aldaketak ekarri ditu. Azpimarragarria da baseritik kale-girora egon den aldaketa. Legeak baserri giroko printzipio eratzaileratzen (jabetzaren funtzio soziala) mantendu arren, legegilearen ikuskera modernoago bat ageri da testuan. Aurrekoaz gain, askatasun zibila foru legearen oinarritzko printzipioa dela adieraz daitezke. Lege berriak bere baitan du zuzenbide tradizional eta ohiturazkoaren ondarea bizirik mantentzea eta aprobetxatzea, begiak egungo munduan eta egungo Euskal Herrian jarrita. Aldi berean eutsi egiten dio jabetza-eskubideak gure lege zaharretan eduki duen izaera solidarioari eta askatasun zibilaren berrespen kategorikoari.

Gako-hitzak: Euskal Zuzenbide Zibila; jabetzaren funtzio soziala; askatasun zibila.

*“Legelari gazteentzako Adrián Celaya saria”ren V. Edizioan saritutako lana, Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademiak 2020an emana.

La efectividad social de la ley 5/2015 de Derecho Civil Vasco

Resumen: La nueva Ley 5/2015 de Derecho Civil Vasco, de 25 de junio, ha aca-
rrado varias modificaciones entre las que cabe destacar la transición del mundo
rural al mundo urbano. Si bien la Ley conserva algunos principios constitutivos del
mundo rural (función social de la propiedad), el texto denota una concepción más
moderna de la sociedad a la que se dirige, como lo refleja el principio básico de la
libertad civil, propio de las leyes forales. Por consiguiente, la nueva Ley integra en
su seno el patrimonio vivo del Derecho consuetudinario y tradicional con una mi-
rada puesta en la realidad actual y en la Euskadi de hoy día. Asimismo, se conserva
el carácter solidario que el derecho de propiedad siempre tuvo en las leyes viejas y
se refuerza el principio de libertad civil.

Palabras clave: Derecho Civil Vasco: función social de la propiedad; libertad civil.

The social effectiveness of Basque Civil Law 5/2015

Abstract: The new Law 5/2015 on Basque Civil Law, of June 25, has brought
about several modifications, among which the transition from the rural world to
the urban world should be highlighted. Although the Law preserves some consti-
tutive principles of the rural world (social function of property), the text denotes
a more modern conception of the society to which it is addressed, as reflected in
the basic principle of civil liberty, typical of the laws forals. Consequently, the new
Law integrates within it the living heritage of customary and traditional Law with
a focus on the current reality and on the Euskadi of today. Likewise, the solidarity
character that property law always had in mind is preserved. the old laws and the
principle of civil liberty is reinforced.

Key words: Basque Civil Law: social function of property; civil liberty.

AURKIBIDEA: I. SARRERA; II. ARAUEN ERAGINGARRITASUN SOZIALA: 1. Euskal legegilea; 2. Betepena eta aplikazioa; 3. Zuzenbide Pribatuaren eta Zuzenbide Publikoaren arauak; 4. Soziologia Juridikoa eta Legegintza-zientzia; III. EUSKAL GIZARTEAN DAUDEN PREMIAK ETA BEHARRAK: 1. Euskal Zuzenbide Zibilaren funtsezko ezaugarria: ohitura; 2. Euskal Zuzenbide Zibilaren bilakaera; IV. TIPOLOGIA ETA EUSKAL LEGEAREN ERANTZUNA: PRA-XIS: 1. Askatasun zibilaren kontzeptua; 2. Euskal auzotasun zibila; 3. Tronkalitatea, Aiarako Forua eta Gipuzkoako baserria; 4. Ezkontideen eta izatezko bikoteko kideen arteko eskubideak parekatzea; 5. Oinordetza zuzenbidea; 6. Ondasunen araubidea ezkontzan edo izatezko bikotean; 7. Zerga-araudiaren egokitzea; 8. Praxis soziala eta profesionala: Estatistikak; V. GOGOETA ETA ONDORIOAK; VI. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

LABURDURAK

AVD-ZEA	Zuzenbidearen Euskal Akademia
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
LDCV-ZZEL	Zuzenbide Zibilari buruzko Euskal Legea
LDCFPV-EHFZZL	Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko Legea
OJ	Oinarri Juridikoa
RSBAP-EAE	Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte
art.	artikulu
errek. zk.	errekurtso zenbakia
koord.	koordinatzailea
or.	orrialdea
orr.	orrialdeak
zk.	zenbakia

I. SARRERA

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea (hemendik aurrera LDCV-ZZEL) uztailaren 3an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urriaren 3an indarrean sartu zen. Urteetako lanaren ondorioz, Eusko Legebiltzarrak — Zuzenbidearen Euskal Akademiak (hemendik aurrera AVD-ZEA) eta RSBAP-EAEk¹ beste eragile juridikoen parte-hartze eta laguntzaz prestatu zuen lege proposamenean oinarrituta —, Euskal Zuzenbide Zibilaren legea onetsi zuen, aurkako botorik gabe.

Lege berri honen aurrekaria, uztailaren 1eko 3/1992 Legea izan zen, hain zuzen ere, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa (hemendik aurrera LDCFPV-EHFZZL). Azken honek, Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera EAE) Lurralde Historiko bakoitzerako arauketa zeukan eta hiru liburutan banatzen zen.

Lege berriak, EAEko lurraldeentzat erkide den zuzenbide zibilaren eratzearen bidean, berritze bat suposatu du: lehen aldiz, euskal lege-gileek idatzi zuten eta euskal organo legegile batek onartua izan zen. Edukia azaletik aztertuta, hiru titulutan banatuta dago: I. Titulua ondareari buruzko zuzenbidearen printzipioei buruz ari da, II. Tituluak, oinordetza bera aztertzen du eta III. Tituluak, ezkontzako ondasunen araubidea du hizpide.

EAEko Auzitegi Nagusiaren lehendakariak, Juan Luis Ibarra Roblesek adierazi bezala, Legea indarrean sartu zenetik, euskal herritartasuna, Gernikako Estatutuaren 7. artikulua² eratzen duena, aberastu egin da ondare juridiko gisa, euskal auzotasun zibil komunaren estatusarekin. Berritasun

¹ Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, 1764.

² 1979ko abenduaren 19ko Euskal Herriko Autonomia Estatuturen 7. art.: «1.- Estatuto honetaz balia ahal izateko, ondoko hauek izango dute euskaldunen kondizio poli-

honek, EAEko lurralde barruko udalerrietako edozeinetan auzotasun zibila duten guztiei eragiten die.

Azpimarragarria da baserritik kale-girora egon den aldaketa. Legeak baserri giroko printzipio eratzaille batzuk (jabetzaren funtzio soziala) mantendu arren, legegilearen ikuskera modernoago bat ageri da testuan. Hala ere, baserriaren definizio³ eta edukia ezartzen ditu eta familia-jabetza eta familia-ustiategi izaera azpimarratu egiten du. Horrez gain, arauketa bereziaren bidez, landa-errentamenduen (baserria eta lursailak) harreman juridikoek euskal tradizioan izan dituzten ezaugarri bereziak gorde eta garatzeko deialdia luzatzen die botere publikoei. Baserriaren garrantzi ekonomiko, familiar eta sozialari buruz eta honek euskal erakunde zibilarren sorreran, kontserbazioan eta garapenean duen eragin zuzenari buruz, GOIKOETXEA OLEAGA⁴ irakasleak argi esan du, legegileak, oso urrats handia egin duela LDCV-ZZEL onartzean. Aldi berean, azpimarratu du, benetako Euskal Zuzenbide Zibila eta, bereziki, Euskal Ondare Zuzenbidea bere osotasunean garatzeko bultzada eman behar dela.

Gainera, Legeak, kofradia, ermandade eta mutualitateen arauketa⁵ ahalbidetzen du. Azken honetan isladatzen da euskaldunok elkarrekin jarduteko izan dugun joera, hots, gizarte zibil baten islada.

tikoa: Estatuko lege orokorren arauera, Komunitate Autonomoaren lurraldeko edozein udaletan egoitza administratiboa duten guztiek. 2.- Atzerrian bizi direnek eta gauza bera berorien ondokoek hala eskatzen baldin badute, Euskal Herrian bizi diren egoiliarrek dituzten eskubide berberak izango dituzte, baldin eta horien azken egoitza administratiboa Euskal Herrian izan bada, eta españatar naziotasunari eutsi badiote».

³ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa 12. eta 97. art.

⁴ GOIKOETXEA OLEAGA, L. «La función social de la propiedad y los principios patrimoniales del Derecho Civil Vasco», in URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.) *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Eusko Legebiltzarra, RSBAP-EAE, Vitoria-Gasteiz, 2016, 239-271. orr.

⁵ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa 16. art.

Lege berria, askatasun osoz idatzita dago eta askatasun zibila oinarritzat duen legea da. 1526ko Bizkaiko Foru Berriak «las leyes del Fuero son más de albedrío que de sotileza y rigor de derecho...» zioen, eta LD-CV-ZZELren 4. artikulua arabera, arauak esku-emaileak izango dira. Modu honetan, inposizio edo ezarpenaren orde, eskubidea eta aukera gailendu egingo da.

«El orden jurídico foral es un auténtico orden de libertad, fuera de las imposiciones de cualquier escuela»⁶ CELAYA IBARRA magistratu eta foruzaleen maisuak, askatasun zibila foru legearen oinarritzko printzipioa dela adierazi zuen, hain zuzen ere, egilesleen borondatea legearen gaitetik jartzen duena. Jakina, ordena publikoaren, ondasun erkidearen edo zuzenbide naturalaren aurkako erabakiak direnean izan ezik.

Aspalditik, EAEko eragile juridikoak bat zetozen euskal zuzenbide zibilaren egoera osasungaitz eta kezkarriaren diagnostikoaren aurrean premiazkoa zela Euskal Zuzenbidea eraberritzea eta eguneratzea.

Honen harira, Eusko Legebiltzarraren lehendakaria den TEJERIA OTERMIN Andreak adierazi bezala, eskuartean dugun Legeak «hedatu eta eguneratu du gure historiak utzi digun ondarea. Biziberritu egiten da zuzenbide zibil forala, aldatu eta etorkizunera egokitu. LDCV-ZZELk bere baitan du zuzenbide tradizional eta ohiturazkoaren ondarea bizirik mantentzea eta aprobetxatzea, begiak egungo munduan eta egungo Euskal Herrian jarrita. Aldi berean eutsi egiten dio jabetza-eskubideak gure lege zaharretan eduki duen izaera solidarioari eta askatasun zibilaren berrespen kategorikoari»⁷. TEJERIAK ere Legearen praktikotasunak berekin dakarren bi mugarri historiko aipatu ditu. Batetik, Euskal zuzenbide zibilaren eremu tradizionala

⁶ CELAYA IBARRA, A. «En torno al Fuero y al Derecho Foral», *Selección de Estudios Jurídicos*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1999, 355.or.

⁷ TEJERIA OTERMIN, B. *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*. 2015eko azaroaren 2 eta 3an egindako jardunaldiak, Bilbo, 27. eta 28. orr.

EAEko populazio osora hedatzea. Eta bestetik, orain arte erabili izan ohi ditugun tresna batzuk araudian bertan sartzea lortu da.

II. ARAUEN ERAGINGARRITASUN SOZIALA

Oro har, arau juridikoen eragingarritasun soziala balioesteko erabiliko ditugun irizpideak, oso desberdinak izango dira zuzenbide publikoko edo zuzenbide pribatuko arauak aztertu behar direnean. Zuzenbidearen Teoria Orokorraren ikuspegitik, Soziologia Juridikoak eta Legegintzazientziak, irizpide horiek zehazteko eta onartutako arauak bete diren edo ez aztertzeke eta epaile batek aplikatu dituen aztertzeke balioko digute, horien benetako eraginkortasuna defendatzeko funtsezko egitate gisa. Legegilea legeak onartzean, betepenaren eta aplikazioaren bitartez, sozialki baliotsuak diren egoera jakin batzuk lortzen saiatzen da. Eusko Legebiltzarrak zeregin horretan dihardu, legegintza-erantzukizuna eta konstituzio- eta estatutu-eskumena baliatuz, eta EA Eren lurralde osoari begira, arauen eraginkortasun soziala erdiesten saiatzen da.

1. Euskal legegilea

Urteetan zehar, euskal legegileak, iadanik existitzen zen euskal legegintza zibilararen inguruko erredakzio, analisi eta azterketa bat burutu zuen. Eta lan horren bitartez, ahobatez eta talde parlamentarien aurkako jarrerarik gabe, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, onartu zen.

Jardun horren bitartez, Eusko Legebiltzarrak, tradiziozko instituzio zibilen kontserbazio, aldaketa eta garapena bultzatu zuen. Betiere, 1978ko Espainiako Konstituzioak⁸ eta 1979ko Euskal Herriko Autonomia Esta-

⁸ 1978ko Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. art.: «Zibil legegintza edo bestelako zuzenbide bereziak diren tokietan, Erkidego Autonomoek hauek gordetzeko, aldatzeko edo aitzinatzeko duten eskubidea salbu. Beti arau juridikoen aplikapen eta eraginkortasunari

tutuak⁹ babesten duen eta instituzioei esleitzen dien eskumen legegilea kontuan harturik.

Zentzu horretan, aipatzekoa da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 8/2018 epaiak bigarren Oinarri Juridikoan (hemendik aurrera OJ) zehaztutakoa: «(...) pocas dudas podía haber sobre la competencia de la Comunidad Autónoma para actualizarlas (...) hubiera sido imposible legislar adecuadamente sobre la troncalidad sin atender a poner al día los precedentes (...) Ciertamente, que si la Ley Foral hubiera optado por una subversión total de los precedentes legislativos citados podría ser discutida su oportunidad, pero cuando simplemente se hace una acomodación o actualización de la misma norma no puede haber duda de que quien puede y debe hacerlo no es otro que el Parlamento Vasco»¹⁰.

Ordura arte, 1992ko uztailaren 1eko Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko 3/1992 Legea egon zen indarrean. Lege horren zioen azalpenak, une hartako beharizan juridiko eta sozialei erreferentzia egiteaz gain, momentu hartako legegintza-funtzioa azpimarratzen du:

«Horrela bada, euskal legelariak eraberritu eta gaurko mundura egokitu behar dute Foru-Zuzenbide zaharra, Bizkaian eta Araban idatzita iraun duena eta Gipuzkoan, dagoeneko badakigunez, ohituraz baino gorde ez dena. Kontuz egin beharreko lana da eta gaur eguneko euskal gizartearekiko begirunerik handienarekin burutu beharrekoa, gizarte hori ezin

dagozkion erregelak, ezkontzarekiko erei dagozkien harreman juridiko-zibilak, Erregistro eta Izkribu publikoen eraketa, Kontratuetakoko betebeharen oinarriak, lege arteko eztabaida konpontzeko arauak, zuzenbidearen iturburuak finkatzea, azken kasu hontan Foru erregimen edo Zuzenbide berezien arauak errespetatuz».

⁹ 1979ko Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.5. art.: «Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi -idatzi nahiz ohizkoaren kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere».

¹⁰ EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaiak, 8/2018 zk., abenduaren 12koa, 22/2018 erre. zk.

bait daiteke maiteen dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeak hartzera behartu ere, beste alor batzuetan beharrianak aldaketa sakonak egitea bideratzen badu ere, Zuzenbide zibilak ezin duelako aurrera egin herritarrak erakundeok onartu eta orokorrean eurenganatu gabe»¹¹.

Legegintza-jarduera horrek, argi uzten du bai Espainiako Konstituzioak eta baita Autonomia Estatutuak emandako eskumenen erabilera urria, eta honen arrazoiak bi izan daitezke. Alde batetik, unibertsitateak garatzen zuen prestakuntza- eta espezializazio-ahaleginak eta profesional juridikoen praktikak ez zuten lortu foru-erakunde zibil batzuk gehiago garatzeko irizpideak bateratzea; eta, bestetik, Espainiako doktrina juridikoak eta Konstituzio Auzitegiak Zuzenbide Zibilaren arloko eskumen autonomikoetan inposatuko zuen interpretazio murriztailearen susmoa. Hala eta guztiz ere, Foru Zuzenbide historikoa kontserbatzeko lehen urrats garrantzitsua izan zen. Izan ere, testu konstituzionala onartu ondoren, eraberritze bat behar zen eta honek, EAEko hiru lurralde historikoetako pertsonak eta familiek legea praktikan aplikatzea ahalbidetu zuen.

CELAYA IBARRAK zioenez, «Euskal Legegilearen zeregina ezin da izan testu zaharrak gaurko hizkuntzara itzultzea. Denborak dena aldatzen du, eta egungo munduak bere errealitatera egokitutako arau juridikoak eskatzen ditu»¹².

Esanahi horretan, LDCV-ZZELEN jasotako arauketa berriak, euskal erakunde zibil tradizionalak modernizatu eta gure garaira moldatu nahi ditu. Horretarako, gaur egungo beharrianak kontuan hartu, aplikazioa

¹¹ Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa: Zioen azalpena.

¹² CELAYA IBARRA, A. «Hacia una Ley civil vasca, Jornada hacia la primera Ley civil vasca». *Academia Vasca de Derecho/ Zuzenbidearen Euskal Akademia*, 2007ko ekaina, ez ohiko 4. zk., 13-32. orr.

Euskal Herri osora zabaldu eta zuzenbide gizatiarragoa eta sozialki bizidunagoa bilatuko du, non interes partikularren gainetik, familia- eta gizarte-interesak eta pertsonaren duintasuna gailenduko diren.

Aipatu berri den hori, Euskal Lege Zibilaren printzipio inspiratzailetako bat da, eta 5. artikuluan¹³ jasota dago. Bertan, ezartzen da, jabetzaren euskal ikuskera, bere funtzio sozialagatik eta elkartasun-printzipioagatik modulatu dagoela. Eta nabarmentzen du, legeek Euskal Zuzenbide Zibilaren jabetza komunal, familiar eta sozial mota bereziak babestu egiten dituztela eta modu berean, hauek, aplikatu behar diren garaiko errealitate sozialera egokitzen dira.

CELAYA IBARRAK, Euskal Lege Zibil berriaren Proiektuaren aurkezpena, hurrengo adierazpenen bitartez amaitzen du: «Zuzenbidea, mundu hobeagoa egin ahal izateko nahi dugu (...) Espiritu komunitarioa eta kooperatiboa sustatuko duen eskubide ez hain indibidualista eta gizatiarrago bat bilatzen dugu (...) Proiektu hau onartuz gero, etorkizunean aplikazio garrantzitsuak izan ditzakeen eskumen-esparru bat irekiko litzateke»¹⁴.

Ildo horretatik, interesgarria iruditzen zaigu, eskumen legegile horrek eta lege berriaren onarpenak gizartearen interesari erantzun al dieten aztertzea. *Modu horretan, egiaztatu ahal delako, arauketa berria eta beraz, gizartearen beharrezan zuzendua izan den erantzuna eragingarria izan ote den. Legegileak onartutako arauen eragingarritasun soziala aztertzea ari gara, gizartearen onarpena eta bere erabileraz. Hein handi batean, haren baliozkotasunaz eta praktikotasunaz.*

¹³ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa 5. art.: «1. Jabetzaren euskal kontzepzioa jabetzaren funtzio sozialak eta solidaritate-printzipioak modulatu dute. 2. Banakako jabetzaz gainera, legeek Euskal Zuzenbide Zibileko jabetza forma berezi desberdinak babestuko dituzte, hots, auzo-jabetza, familia-jabetza eta gizarte-jabetza, betiere aplikatu beharreko aldiko errealitate sozialera egokitu daitezzen».

¹⁴ CELAYA IBARRA, A. «Hacia una Ley civil vasca, Jornada hacia la primera Ley civil vasca». *Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia*, 2007ko ekaina, ez ohiko 4. zk., 13-32. orr.

2. Betepena eta aplikazioa

Esangura horretan, argi dago, euskal gizartean premia juridiko batzuk existitzen zirela eta horren aurrean, 5/2015 Legeak irtenbide edo konponbide batzuk luzatu ditu. Lege berriaren bidez, premia horiek behar bezala asetu diren ikusteko, eskuartean ditugun arauen eragingarritasun soziala aztertzea komeni da.

NAVARROK¹⁵ jorratzen duen eragingarritasun sozialaren kontzeptuak, arau juridikoen bitartez, gizartearentzat baliagarriak diren egoerak lortzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia. Hain zuzen ere, azken hau da legegileak erdietsi nahi duena.

Ildo horretatik, DELGADO ECHEVERRIA irakasleak¹⁶ hizpide duen arauen eragingarritasun soziala zertan datzan ulertzeko, beharrezkoa da *betepen* eta *aplikazio* kontzeptuak aztertzea. Hein handi batean, bi kontzeptu hauek praktikan jartzerako orduan, sortuko baita ikasketa objektu dugun eragingarritasuna. Arau bat aplikatu eta betetzeak, gizartean arau horrek nolabaiteko eragina izan duela, hots, erabilia izan dela adierazten du.

Zuzenbidearen teoriaren arabera, arauaren betepenari esker, gizartearentzat baliagarriak diren emaitza eta ondorioak lortzen dira. Halaber, ez-betetze kasuetan, epaileek aplikaturiko arauak ere, emaitza balioki-deak emango dizkigute. Hala ere, kasu horretan, emaitzen baliokidetasuna erlatiboa da.

3. Zuzenbide Pribatuaren eta Zuzenbide Publikoaren arauak

Eskuartean dugun gaiari loturik, DELGADO ECHEVERRIAK, arau zibil desberdinek erdiesten duten eragingarritasun soziala aztertu du. Bere

¹⁵ NAVARRO, P.E. *La eficacia del derecho. Una investigación sobre la existencia y el funcionamiento de los sistemas jurídicos*, 1990, Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 19.or.

¹⁶ DELGADO ECHEVERRIA, J. *Notas sobre la eficacia social de distintos tipos de normas civiles*, 2006. DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho, 29.zk., 195-218. orr.

aburuz, eragingarritasun sozial hori antzeman eta baliagarriak diren ondorioak lortzeko, beharrezkoa izango da, zuzenbidearen teoria orokorren, *soziologia juridikoaren* eta *legegintza-zientziaren* ikuspuntuak konbinatu edo erlazionatzen dituzten irizpideak erabiltzea.

Irizpide hauek, Zuzenbide Publikoaren (Zigor, Administrazio eta Lan-zuzenbidea) esparruan ematen diren arauen eragingarritasuna aztertzeko erabiltzen direnetatik ezberdinduko ditugu. Izan ere, aipatu berri den esparruan, *aginduzko arauak* nagusi dira eta kasu horretan, euren aplikazio eta betepena beharrezkoa, derrigorrezkoa edo debekuzkoa litzateke. Are gehiago, zuzenbidearen barruti publikoan, ez-betetze kasuetan, zehapen bidezko esku-hartzea berehalakoa da, azken hau judiziala, poliziala nahiz agintaritzat bidezkoa izan.

Zuzenbide Pribatuko arauen edukiari begira berriz, gehienak, *esku-emaileak*¹⁷ dira. Hitz gutxitan esanda, beren erabilera norbanakoaren borondatearen esku uzten dute. Bada, partikularrek esku-emaileak diren arau horiek erabiltzen ez badituzte eta beraz, beste modu batean jarduten badute, arauak ez aplikatzeak berekin dakar arauak baliozko edo eragingarriak ez izatea. Beraz, ez al dira beharrezkoak? Legea aplikatzeak berekin arrakasta al dakar?¹⁸. Ondorio horretara heltzen bagara, horrez gain, legegilearen jarduna okerra izan dela ere ondorioztatuko genuke. Legegileak, herritarrek erabilgarritzat hartzen ez dituzten arauak onartu baititu, hots, gizartearentzat eragingarri ez liratekeenak.

¹⁷ RUSSO, E. *L'interpretazione delle leggi civili*, Torino: Giappichelli ed., 2000, 174.or. eta hurrengoak; «Norma imperativa, norma cogente, norma inderogabile, norma indisponibile, norma dispositiva, norma suppletiva», *Rivista di Diritto civile*, XLVII, sept.-oct., 2001 573.or. eta hurrengoak.

¹⁸ Cfr. OST, F, y VAN DE KERCHOVE, M. *De la pyramide au réseau? Pour une théorie dialectique du droit*, Bruxelles: Publications des Facultés universitaires Saint-Louis, 2002, 330.or.

Egoera horren aurrean, zuzenbidearen teoria orokorrak kontsideratzen du arau juridikoen eragingarritasun soziala, azken hauen *betepenen* bidez lortzen dela eta modu horretan, gizartearentzako emaitza eta ondorio baliagarriak bermatzen direla. Beraz, hau izango litzateke lege-gileak bere onarpenaren bitartez esan nahi duena. Hala ere, adierazpen hori aginduzko, derrigorrezko edota debekuzko arauentzat dago zuzen-dua, hots, horrek, zigor, administrazio eta lan zuzenbidean zentzua izango luke. Esku-emaileak diren arau juridikoei dagokienez berriz, beren eragingarritasun soziala aztertzeko, beste irizpide batzuk hartu beharko dira. Azpimarratzekoa da azken hauek, Zuzenbide Zibilak arautzen dituen arauen artean ugariak direla.

Hainbat autoreren iritziz, NAVARRO horien artean, arau bat eragingarria izango da jasotzaileengandik horien jarduera edo erabakietarako erabilia izaten bada. Araua, ezagutua izateaz gain, aukeratutako egintzarako motibazio izan baita. Gainera, hirugarrenek ez badute erabakia eragotzen, eztabaidatzen edota horren inguruko oztoporik jartzen, hizpide dugun araua eragingarria izaten ari dela ulertuko da.

Hirugarren batek arauaren ondorioak galarazi, eragotzi nahi baditu, arauaren ondorioak inposatzeko helburuarekin, auzitegiatarako joko da. Kasu hau, COTTERRELLEK¹⁹, arauaren betearazpenaz eta legearen aldarrikapenaz aritzean deskribatzen du. Horren arabera, legea aldarrikatzea izango da, norbanakoak, ordenamendu juridikoak bere eskura jarritako bitarteko edo baliabide juridikoen bitartez inizatiba hartzea. Horrela, norbanakoa da, epaileei bere interesak babesten dituen eta hirugarren batek eragotzi nahi duen arau zibila aplikatzea eskatzen diena. *Modu horretan, betearazpenaren eta epaileen arau zibilaren aplikazioaren tartean partikularren iniziatiba egongo litzateke*. Azken honek, bere interesak asetzeko helburuarekin,

¹⁹ COTTERRELL, R. «Cumplimiento e invocación del Derecho», *Introducción a la Sociología del Derecho*. Barcelona: Editorial Ariel, 1991, 209.or. eta hurrengoak.

horien aplikazioa alegatu edo eskatzen baitu. Legearen aldarrikatze edo eskaera horrek, zuzenbidearen adar guztietan paper garrantzitsua betetzen duen arren, gehienbat, *zuzenbide pribatuan* du eragin. Azken batean, interesdun den partikularrak, berak nahi badu, legea alegatu edo aldarrikatuko du, beste partikular bati arauaren betearazpena galdatuz.

Ondorioz, eta DELGADO ECHEVERRIAK zehaztutakoa aintzat harturik, baieztatu daiteke, partikularrak arauaren betepena galdatu ezean, Zuzenbide Pribatuan ez dela ez- betetzerik egongo. Eta azken honek, auzitegiek arauaren aplikazioa derrigorretara eragotziko du. Ildo horretatik, arau baten eragingarritasun sozialaren irizpideak ezartzeko ikerketan, baieztapen hau egongo dugu: Zuzenbide Pribatuan, arauen betepena eta aplikazioa ez dira balio absolutuak edo erabatekoak.

4. Soziologia Juridikoa eta Legegintza-zientzia

Beste alde batetik, Soziologia Juridikoaren ikuspuntutik, arau juridikoen eragingarritasunaren kontzeptuarekin batera, arauaren arrakastari eta neurketari helduko diogu. Horrela, Zuzenbide Pribatuan eskumena duten eta esku-emaileak diren arau juridiko horien helburua izango da, derrigorrezkoak edo debekuzkoak ez diren egintza batzuen bitartez, beren interesak asetzeko aukera bat eskaintzea.

Hala eta guztiz ere, ahalorde zehatz batzuk erabiltzeko gaitasuna esleitzen duen araua ez erabiltzea komeni da. Hori dela eta, aipatutako arau horren eragingarritasuna ezingo dugu neurtu bere erabileraren maiztasuna aztertu gabe. Izatez, ahalorde batzuen emate hutsak efektuak sortzen ditu, horiek esleitzen dituen araua erabilia izan ez arren.

Bere aldetik, legegintza-zientziak arau juridikoen eraginkortasun sozializatutaz ulertzen duena sozialki baliotsuak diren gauzen egoerak lortzeko gaitasuna da. Horretarako, legegileak, partikularrak borondatez betetako edo

epaileek aplikatutako legeetaz baliatuz eta emaitza eta ondorio determinatzaileak lortzeko helburuarekin, legea egiten du. Baina epaileek araudi zibila borondatez betetzearen eta aplikatzearen artean, ekimen partikularra jartzen da, eta hark eskatu behar du betetzea, betetzen ez bada, beren interesak asetzeko. Horregatik da hain garrantzitsua zuzenbide pribatuan ekimen pribatua, esku-emaileak direnez gero, hauei uko egin ahal zaielako.

Esangura horretan, legegileak, esku-emaileak diren eta ahalordeak esleitzen dituzten arauak onartzen dituenean, partikularrek nahi izatekotan, arauak zehaztutako egintza burutzea nahi izango da. Azken honek, arauaren eragingarritasun soziala bere horretan erdiestea dakar. Esku-emaileak diren arauen arrakasta osatu daiteke, bai araua aplikatzean eta baita arau hori kasu batean ere ez aplikatzean. Hau arauak ematen duen baimen edo ahalordearen eta hartzailearen erabaki edo egintzaren arabera izango da.

DELGADO ECHEVERRIA irakasleak kontsideratu du, Zuzenbide Pribatuko arau juridikoen eragingarritasun soziala balioesteko, arau horien betepen eta aplikazioaren neurketa eta egiaztapen hutsa ez dela aski. Are gehiago, haratago joan beharra dago, aurretik aipatutakoak, aginduzko arauentzako irizpide baliagarriak izan arren, esku-emaileak diren eta ahalordeak esleitzen dituzten arauentzat, hots, araugintza zibilean gailentzen diren horientzat ez dira hain esanguratsuk izango²⁰.

Adierazpen horiek babestu eta indartzeko, DELGADO ECHEVERRIAK²¹, testamenturik gabeko oinordetzaren, ezkontzaren ondasun-erauzaren eta kontratuen zuzenbidearen ereduak hartu eta azterketa bat burutzen du. Bertan argi ikusten da, esku-emaileak diren arauak, testamentu bidez,

²⁰ DI LUCIA, «Agire *secondo* una norma, agire per una norma, agire *in funzione di* una norma» COMANDUCCI, P., e GUASTINI, R. (koord.) *Struttura e dinamica dei sistemi giuridici*, Torino: Giapichelli ed. 1996, 37.-45. orr.

²¹ DELGADO ECHEVERRIA, J. *Notas sobre la eficacia social de distintos tipos de normas civiles*. DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho 2006, 29. zk., 210.-214. orr.

ezkontza-itun bitartez nahiz kontratu baten klausula desberdinen bitartez saihestu ahalko direla. Edonola ere, beren arauketa beharrezkoa da eta kasu zehatz batzuetan praktikan jarriko dira, hots, partikularren aurreikuspenetan gabezia bat sorraraztean. Nahigabekoa izango da, testamenturik egiletsi gabe norbait hiltzen denean, edota testamentua bera osatugabea nahiz deuseza denean. Nahigabekoa ere, ezkontza-ituna burutu ez duten ezkontideen kasuan. Eta azkenik, kontratuaren egilesteari dago-kionez eransgarri edo osagarri diren kasuetan.

Ondorio moduan, DELGADO ECHEVERRIAK azpimarratu bezala, esku-emaila izaerako arauak eta horiek baztertzen dtuzten partikularren partikularren kasuen zenbateko eta proportzioak ezagutzea, adierazgarria eta beraz, garrantzitsua izango da, hauen eragingarritasunari begira; betiere, partikularrei emandako ahalordeen erabilpen errealearen eta gizarte harremanak osatzeko gaitasunaren zentzuan ulertuta.

III. EUSKAL GIZARTEAN DAUDEN PREMIAK ETA BEHARRAK

Orain arte esan dugun bezala, euskal legegileak bere erantzukizuna betetzen du batetik, EAEko herritarren beharrak eta eskariak jasoz eta bestetik, horri erantzuten dioten eta gizartean aplikatu daitezkeen legeak proposatu eta onartuz. Beraz, akats bat litzateke, gizarte, familia eta ondare guztiz desberdin batentzat, iraganean idatzi ziren legeak bere horretan mantentzea. Azken batean, horien lana litzateke, tradizio historikoaren usadio eta ohituretan jaio eta gero, gaur egun arte aplikatutako Foru eta Legeetan jasotako erakunde juridikoetatik funtsezkoena ateratzea.

URKULLU RENTERIA lehendakariaren hitzetan: «Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legea aurrera pausu bat da. Legebiltzarrak onartu duen testuak jakin du iraganeko ikuspegia jasotzen, baina begirada etorkizunearan jarrita. Jakin du duela mende batzuetako ohitura eta usadioetatik

jaiotako erakundeak eguneratzen. Eta gizarte moderno batek dituen arazoak konpontzeko tresna bihurtu ditu. Traineruaren irudia erabiliz, esango nuke etorkizunerantz goazela iraganari begira. Adostasuna abiapuntua dugula, arraunean elkarrekin»²².

1. Euskal Zuzenbide Zibilaren funtsezko ezaugarria: ohitura

Zalantzarik gabe, jatorrizko Euskal Zuzenbide Zibilaren funtsezko ezaugarria ohiturazkoa izatea da. Erabileratik eta ohituratik sortutako sistema juridiko-zibila da, denboran zehar gizarte-premien erritmoan eboluzionatu dena. Beraz, etengabe berritzen ari den zuzenbidea da eta gizarte-premia aldakorrei erantzuna eta estaldura juridikoa ematen die. Euskal Zuzenbide Zibilean zeregin garrantzitsua zuten notario eta baita epaileek ere, sotiltasunez eta ez zuzenbidearen zorrotasunez, Albedrioko Foruak interpretatu zituzten²³. Zuzenbide bizi hau, egokitu egiten da eta erantzuna ematen die beharizanei. Lurralde bakoitzak erantzuna eman zien, lege kutsuko Foru batean jasoz, Batzar Nagusietan onartuz— ohiturazko Foruari ziurtasuna emanez— edo beste kasu batzuetan, jatorrizko ohiturazko Forua mantenduz.

LALINDE ABADÍA irakasleak, ohitura, «foru-lurraldeetako lehen mailako iturri juridiko gisa» hartzen du. Eta sistema juridiko horien artean, asko dira Pirinioetako iturriaren barruan koka daitezkeenak. Bai printzipioei begira eta baita erakundeei begira ere anglosaxoiko sistemekin antzekotasunak ageri baitira, eta ezberdintasunak berriz eredu erromatarrarekin. Laburbilduz, euskal kultura juridiko-zibilaren ondare historikoa sistema zibil bizia izatean datza, eta behar sozial berriak sortu bezain laster be-

²² URKULLU RENTERIA, I. *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*. 2015eko azaroaren 2 eta 3an egindako jardunaldiak, Bilbo, 33. eta 34. orr.

²³ Fuero Viejo 1452, 214, en el futuro F.V. Bajo el epígrafe De los Patronazgos de los monasterios é de los derechos de ellos a quien pertenecen é por quien deben ser juzgados [...] por quanto en dicho Condado no se guardaba en los pleitos orden de derecho,

rritzen da. Euskal zuzenbidearen ohiturazko jatorri hori, Euskal Herriko Foru Legalen Legeen Hitzaurrean jasota dago, eta bertan esaten da, Foru erabilera eta ohitura zegoela, hau legean jasoz. Ohiturazko Zuzenbide Zibila Erdi Aroan eta Aro Modernoaren hasieran sortu zen, eta lurralde historiko bakoitzeko batzar nagusiek onartutako legezko foruetan jaso zen²⁴. Iraganean, ohitura hain errotuta egon zen foru-lurraldeetan, ezen Nafarroako Foru Berriak, martxoaren 1eko 1/1973 Legearen bidez onetsitakoak, bere 2. legean ohitura Nafarroako zuzenbidearen lehen iturri gisa jartzen baitu.

2. Euskal Zuzenbide Zibilaren bilakaera

Euskal Zuzenbide Zibilak azken mendeetan pairatu duen jopuntueta-ko bat bere egunerokotasun eza izan da. Azken hau, bereziki XIX. mendean, kodifikazio handien garaian eman zen, non Foruak askotan zalan-tzan jartzen ziren²⁵.

1888ko Espainiako Kode Zibilak alde batera utzi zuen 1851ko proiektu bateratzailea, eta 12. artikuluan hurrengo ezarri zuen: foru-zuzenbi-

nin había probanzas, nin se guardaban en los pleitos otras solemnidades é sotilezas de derecho, nin había probanzas, nin se guardaban en los juicios otras probanzas é sotilezas del derecho é que los dichos alcaldes e veedor juzgaban los dichos pleitos, según el fuero de albedrío [...].

²⁴ Bizkaia, Fueros territoriales: FV. 105; Fuero Nuevo de Vizcaya 1526, 20.11, 20.13, en el futuro F N. En idénticos términos se recogen en los Fueros locales de Bizkaia: Fuero de Durango s. XIV, Fuero de Albedrío de las Encartaciones 1503, 3.23. Álava, Fuero de Ayala (1373) y Aumento del Fuero (1469), en el futuro F A., Gipuzkoa, Fueros locales. Foru Agirien Bilduma/ Colección de textos Forales/ Bizkaiko Foru Legeria/ Legislación foral de Bizkaia, T. I., Bilbao 1991: Bizkaiko Foru Aldundia, Diputación Foral de Bizkaia. Este volumen contiene todos los Fueros y leyes históricas de Bizkaia y de la Tierra de Ayala.

²⁵ CELAYA IBARRA, A. «El Derecho civil y los juristas vascos. Necesidad de crear una Sección de Derecho civil». *Boletín de la Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia Aldizkaria*. 2003, 1. zk., 42.-53. orr.

dea indarrean duten Espainiako lurraldeek “oraingoz oso-osorik” gordeko zutela. Xedapen horrek, foru-lurraldeen eskubideak geldituta mantentzea zekarren, 1888an zeuden moduan, harri bihurturik. Foru Zuzenbidea antzinako testu eta epaietan oinarritzen zen, eta, beraz, askoren ustez, anakronikoa zen. 1956ko uztailaren 31ko Bizkaiko eta Arabako Zuzenbide Zibileko Konpilazioak, indarrean zegoen Zuzenbidea mantendu nahi izan zuen, idatziz finkatuz. Hala ere, euskal foru-zuzenbidea likidatzeko saiakera ere izan zen, eta, hasteko, ohiturari buruzko aipamen oro ezabatu zen.

1978ko Konstituzioa, eskuzabalagoa izan zen, eta errealitate historikoa kontuan hartuta, autonomia erkidegoak sortu zituen. 149.1.8 artikuluan ezarri bezala, Estatuak eskumen eskusiboa du legeria zibilaren arloan, «Hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek foru-eskubide zibil edo eskubide bereziak gordetzea, aldatzea eta garatzea, halakorik dagoen lekuetan». Foru Zuzenbidea gordetzeaz gain, aldatu eta garatu ahal izatea ere garrantzitsua da. Euskal Zuzenbide Zibila printzipio irmoetan eta etengabeko bilakaeran oinarritutako sistema da eta haren lege-garapena ezinbestekoa da bizirik irauteko.

Konstituzioaren testuak ezarri itxaropenak gorabehera, euskal legegintza-ekintza asko atzeratu zen. Euskal legegileak, ez baitzeuden katalanak edo aragoiarrak bezala prestatuta, eta horrek berekin ekarri zuen gaur egun existitzen den AVD-ZEAren sorrera.

1982an Donostian egin zen Euskal Zuzenbideari buruzko Biltzarrak, argi eta garbi erakutsi zuen legegileak ez zeudela prestatuta garai hartara egokitutako euskal Zuzenbide Zibilari buruzko lege bat egituratzeko, eta, beraz, bazirudien ezinbestekoa zela gure Zuzenbide Zibilari buruzko mintegia sortzea, porrot hori gertatu eta gutxira jaio zena RS-BAP-EAEen barruan. Mintegiak laster jakin zuen 1956ko legearen artikulua eta sistematika (gehigarri-proiektuetan oinarritua) alde batera utzi behar zirela lege bat egiteko, forman baino gehiago, ikertu beharreko

euskal zuzenbide zibilaren printzipio inspiratzaileetan oinarrituko zena. Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako batzorde batek egindako proiektu batean oinarrituta, Mintegiko kideak eta notario-elkargoko ordezkariak bildu eta 1992ko uztailaren 1eko legea posible izan zen. Hala ere, lege honek, ez zuen euskal gizartea asebeste. Batetik, ohitura gipuzkoarrak eta arabarrak artikulatzea falta zen. Bestetik, erakunde batzuei zegokienez, testua kontu handiagoz landu beharra zegoen, eta, hori gutxi balitz, tronkalekotasunari begira, egungo bizitzara egokitzekeko urrats sendoagoak eman behar ziren.

Aipatutako uztailaren 1eko 3/1992 Legeak, Gipuzkoako lurraldeari dagokionez, aldaketa eta arautegiaren handitze baten bidez bultzada handia jaso zuen. Hain zuzen ere, horren isla da azaroaren 26ko 3/1999 Legea, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez aldatzekoa.

Legearen edukian eta tipologian buru-belarri sartu aurretik, beharrezkoa da horren inguruko aipamen batzuk egitea. URRUTIA BADIOLAK *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros* izenburupean 2015eko azaroaren 2 eta 3an ospaturiko jardunaldietan²⁶ zehaztu bezala, nabarmentzekoak dira LDCV-ZZELk, oinordetza erregulazioan sorrarazi dituen aldaketak. Honen aurrean, EAEn aplikagarri diren erregulazio maila desberdinen artean, kateadura sendo bat bilatzea garrantzitsua izango da. Euskal zuzenbide zibilaren, zuzenbide zibil erki-dearen eta Europako zuzenbidearen arteko harremanaz ariko ginateke.

Honi loturik, aipatzekoa da instituzioek honen aurrean jokatu beharreko papera, hots, beharrian sozialei erantzutea eta honen garapen teo-

²⁶ URRUTIA BADIOLA, A.M. «La sucesión mortis causa en general en la ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco y los testamentos en particular», *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Eusko Legebiltzarra, RSBAP-EAE, Vitoria-Gasteiz, 2016, 303.-341. orr.

riko eta praktikoa jarraitzea. Ez hori bakarrik, beharrezkoa izango da, Legeak emandako irtenbide edo konponbide hauek, euskal gizarteak eta eragile juridikoei gure eskura jartzen dituzten adierazle soziologiko, estatistiko eta ekonomikoekin kontrastatzea. Azkenik, eta testamentu-gintzari dagokionez, testamentu-ahalorde edo oinordetza-fiduziarioaren oinordetza itunak eta testamentu mankomunatuaren garapen teoriko eta praktikoa beharrezkoa izango da.

Esanahi horretan, legegileak, LDCV-ZZELan jasotako arau zibilak onartuz, askatasun zibilaren printzipioaren alde egiten du, betiere, asebetetze eta eraginkortasun soziala bilatuz.

IV.TIPOLOGIA ETA EUSKAL LEGEAREN ERANTZUNA: PRAXIS

Eusko Legebiltzarrak, 2013ko azaroaren 28an Euskal Zuzenbide Zibila eguneratzeko berariaz sortutako Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean aho batez egokitutako ebazpen baten bidez, bere gain hartu zuen XXI. mendeko euskal gizartearentzako lege zibil berri bat egiteko eta onartzeko lana. Konpromiso horretatik, profesionalek eta gizarte-erakundeek Legebiltzarraren aurrean bateratze-lana egin zuten, errealitate sozial berriei erantzuteko Euskal Lege Zibil berrian sartu behar ziren erakunde zibilak eta tipologia juridikoa aztertu eta proposatu. Legegintza-lan horren emaitza da onartutako LDCV-ZZEL, eta, jarraian, legearen aldeko zenbait alderdi edo funtsezko ezaugarri nabarmenduko ditugu; batetik, beren erabilera gehiago ahalbidetzen baitute eta bestetik, EAEko biztanle guztiei zabaltzen baitzaizkie.

1. Askatasun zibilaren kontzeptua

Legegileak askatasun zibilaren printzipioa euskal zuzenbide zibilaren iturriari buruzko kapituluan sartzen du eta euskal sistema juridiko pribatuaren funtsezko elementutzat hartzen du. CELAYA IBARRAREN hitzetan,

«(...) el Derecho Civil Vasco se distingue también, por su gran apego a la libertad, que en este caso es la libertad civil, y mantuvo en todo su ámbito instituciones como la libertad de testar, los testamentos por comisario y en forma mancomunada o los pactos sucesorios que el Código Civil prohibió terminantemente»²⁷.

Arau zibilen jardunari begira, esku emaile izaera dute, beraz, horietatik eratorritako eskubideei uko egin dakieke, betiere ordena publikoari edo hirugarrenen interesari kalterik egiten ez bazaio. Haren erregulazioak, ohiturazko jatorria indarrean dagoen araudian mantentzen du. Izan ere, foruek izaera hori, “zuzenbidean sotiltasuna eta zorrozatasuna baino gehiago, hautamena” delako baieztapenekin jaso zuten, eta baita idatzizko legeen hasieran behin eta berriz erabiltzen zen esaldiarekin ere “Erabilera eta ohitura zutela eta lege bidez ezartzen zitzutela”.

Legegileak, izaera pribatuko harreman juridikoak autoregulatzeko borondate askean eta praktika kolektiboan oinarritutako printzipio hori berariaz jasotzen du. Eta azken hau, legean sartzen diren gai zibilei, hala nola oinordetza-zuzenbideari eta familia-ondareari, eragiten dieten erabakiak hartzeko orduan errespetua eta askatasuna zabalatzeko borondatearen adierazpen gisa hartzen du. Eta hala adierazten da tronkalekotasunari eta seniparteei buruzko araudiek ukitutako pertsonen erabilera askearen ondorioak eta mugak murriztuko dituzten arauetan, EAE osora zabalitzen baitira, pertsoneri erabaki askeagoak hartzeko aukera emanaz.

Printzipio hori Zuzenbide Zibilaren adar desberdinetan ageri da, baina bereziki, oinordetza-zuzenbidean, oinordetza-askatasunaren bidez, ondarearen batasuna eta familiaren edo lanbidearen ustiapena mantentzea ahalbidetuko duen tresna gisa. Modu horretan, testamentua komisario

²⁷ CELAYA IBARRA, A. «Hacia una Ley civil vasca, Jornada Hacia la primera Ley civil vasca» *Boletín de la Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkarian*, 2007ko ekaina, ez ohiko 4. zk., 31. or.

bidez egitean eta izendatutako pertsonari ahalordea esleitzean agertuko da; baita, oinordetza-itunak egitean edota jaraunslea hautatzeko askatasunean ere, senipartea nori eratziki erabaki ahal izatean eta senipartedunen bazterketari egitean.

2. Euskal auzotasun zibila

Ordura arte, legegileak EAeko Foru Zuzenbide Zibila kontserbatzeko eta aldatzeko jardun bat garatu eta 1992ko legean eguneratu zuen. 2015eko lege berriarekin, araudi hori eguneratu eta garatzeko ardura hartu eta egungo gizartearen behar eta aldaketa sozial, familiar eta ekonomikoetara egokituz, haren aplikazio-eremua eta indarraldia EAE osora zabaldu zuen.

ÁLVAREZ RUBIOren hitzetan, euskal auzotasun zibila euskal lege zibil berriaren benetako giltzarria da eta honakoa adierazten du «(...) constituye un elemento básico para resolver los conflictos de leyes en el ámbito interregional, en cuanto principio general de vinculación y como técnica para determinar la sujeción a un determinado ordenamiento civil»²⁸. Hala ere, honako hau adierazi du: «(...) no puede hablarse de creación ex novo de una nueva vecindad civil (la vecindad civil vasca), sino que se positiviza el reconocimiento de la existencia de tal categoría, como única vía conflictual que permita hacer realidad la aplicación de ciertas instituciones civiles propias de nuestro Derecho civil vasco a los tres Territorios Históricos, respetando las particularidades o especificidades de cada uno de ellos, pero a la vez dando plasmación normativa a una realidad subyacente históricamente y que por primera vez adquiere refrendo legal».

²⁸ ÁLVAREZ RUBIO, J. J. «Del ámbito de aplicación de la Ley Civil Vasca (Artículos 8 a II). Ámbito de aplicación territorial y personal de la ley 5/2015: Normas de conflicto y vecindad civil vasca» in URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.). *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco Comentarios breves texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notaria*, Academia Vasca de Derecho- Zuzenbidearen Euskal Akademia, Dykinson, Bilbao, 2016, 37. or.

Gizarte-eskaera bati ematen zaion legezko erantzuna da eta bere harreman pertsonal, familiar eta ondarezkoak planifikatzeko, lege-baliabide berberak eduki ahal izateko orduan, berdintasunez erabilia izan beharko da. Azken batean, euskal auzotasun zibil hau erregulatzeak dakar indarrean dagoen legea EAEko hiru lurralde historikoetan aplikatzea. Hemen interesatzen zaiguna da, euskal auzotasun zibil hori dela eta, euskal herritar guztiei oro har aplikatu dakiekeen euskal oinordetza-zuzenbideko araubide bat lotzea. Araubide horren ezaugarri nagusia da, oro har, aplikazio-ardatz bikoitza duela.

Hortaz, Lege berriak, 10. artikuluan²⁹ eta lehen aldiz, euskal auzotasun zibilaren kontzeptua ezartzen du, eta hau, Zazpigarren Xedapen Iragankorrean EAEko edozein lurraldetan auzotasun zibila duten guztiei esleitzen die. Euskal auzotasun zibil komun horretaz gain, legeak berak aitortzen dituen lurralde-espezialitateekin lotura espezifikoak dutenei tokiko auzotasun zibila esleitzen die; izan ere, foru-komunikazioaren tronkalekotasunean eta ezkontzaren araubide ekonomikoan oinarritzen dira, funtsean, bizkaitarrentzat, hiribildukoentzat edo elizatekoentzat, aiaraldarrentzat testamentua egiteko askatasunean eta Gipuzkoan baserria transmititzeari buruzko arau berezietan, gipuzkoarrentzat.

Horrek guztiak, azken batean, errealitate berri bat eratzen du EAEko lege zibilen gatazkarako, eta barne ikuspegitik, 9.3. artikulua, lege-gatazka horretara jotzen du, berariaz ezartzen baitu: «Tokiko gatazkak ger-

²⁹ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. 10. art.: Aplikazio pertsonalerako eremua. «1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Zibila aplikatzen zaie euskal auzotasun zibila duten pertsona guztiei. 2.– Euskal auzotasun zibila, edo bestela tokiko auzotasun zibila hori aplikatu behar denean, Kode Zibilaren arauekin bat etorritik eskuratu, iragarazi eta galdu egiten da, betiere ondasun tronkalekotasun-printzipioari kalterik egin gabe. 3.– Lege honek Zuzenbide Zibileko arauak jasotzen dituela kontuan hartuta, halako batzuk arau berezi moduan indarrean badaude Bizkaiko lurralde historikoan, eta Audio eta Aramaioko udaletan, orduan lurralde horietan tokiko auzotasun zibila dutenei aplikatzen zaizkie arauok, forudun izan zein ez».

tatzen direnean lurralde batzuetan indarrean dauden arauen artean, edo gatazkak gertatzen direnean arau horien eta EAeko arau orokorren artean, gatazkok konponduko dira Kode Zibilaren xedapenen bitartez, betiere ondasun tronkalen arloan indarrean dagoen lurraldetasun-printzipioari kalterik egin gabe».

Euskal auzotasun zibilarekin batera, EAeren lurraldea, Legean araututak dauden printzipio, erakunde eta errealitateen ondoren, aplikatzeko hurrengo faktore gisa agertzen da. Aipatutako printzipio hauen adibide garbiak izango dira, elkartasunaren printzipioa eta jabetzaren funtzio soziala, hizkuntza koofizialak eta euskal zuzenbide zibila, baserria, landa-errentamendua, bide-zorra, landak ixteko eskubidea, kofradiak eta ermandadeak, hil buruko testamentua eta Kode Zibilak ezarritako beste testamentu motak.

3. Tronkalitatea, Aiarako Forua eta Gipuzkoako baserria

LDCV-ZZEL berriak, lurralde guztietarako erkidea den euskal espazio juridiko horren ondoan, lurralde-espazio juridiko batzuk eratzen ditu, euskal lurralde historikoetako berezko erakundeetan oinarrituta daudenak, eta horiek aplikatzeak, tokiko auzotasun zibila lotura-puntu gisa defendatzen du, aplikatzen diren lurralde mugatuarekin batera.

Bere historia eta hedaduragatik, beharbada, garrantzitsuena Bizkaiko, Aramaiako eta Laudioko tronkalitatea da, eta horren aplikazioa leundu egiten da, bai doako egintzen urratzearen ondorioei dagokienez, deuseztagarritasun absolutua izateari utzi eta deuseztagarri bihurtzen delako, bai eta foru-sakaren bidez kostu bidez egindako egintzei dagokienez³⁰. Lehentasunez eskuratzeko tronkaleko eskubide horri eusteak, GOIKOETXEA OLEAGAREN³¹ aburuz, tronkalitateak familia-funtzioari balioa em-

³⁰ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa 61.- 87. art.

³¹ GOIKOETXEA OLEAGA, L. «De los derechos troncales de adquisición preferente (Artículos 72 a 82)», in URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.). *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Dere-*

ten dio, arrotzen aldeko besterentzeak gertatzen direnean ondarearen familia-izaera defendatzeko tresna eraginkorra den aldetik.

Zentzu horretan, EAEko JANren 2017ko azaroaren 4ko Epaia³², bostgarren OJan, foru-sakako akzio bat gauzatzeari eta baserriat zer ulertu behar den zehazteari buruzko gaia ebazten du, bere iritzia emanez. Horrela, foru-sakako akzioa aintzat hartzen da eta ezezagun bati egindako salmenta saihesteko, egungo LDCV-ZZEL aplikatzen da bai baserriaren kontzeptuari dagokionez eta baita tronkaleko ahaideek duten lehentasunez eskuratzeko eskubideari dagokionez ere.

Egungo araudian oinarritutako erabaki horrek jabearen askatasuna mugatu arren, ez da ondasunen edo finken xedatze-askatasunaren edo trafikiko juridikoaren aurkakoa, baizik eta, horren bitartez, familia tronkalarren barruko ondarearen kontserbazioa babesten da.

Ikuspuntu praktikotik, arauketa berri horrek aukera emango du tronkaleko ondasun baten jabeak xedatzeko eta erabakitzeko askatasuna zabaltzeko, ondasun hori familiakoa ez den beste pertsona bati eman edo saldu nahi dionean, tronkaleko ahaide ez bada. Horrela, ondasun higiezinaren trafikiko juridiko eta ekonomikoaren jarduketak errazten dira, tronkalekotasun-eskubideak egungo gizartearen behar, praktika eta balioekin konbinatuz.

Horrez gain, Gipuzkoako baserriari buruzko arau berezien (96.-99. artikulua) bidez eta baita 88. artikulutik 95. artikulura bitartean ezarritako arauketaren bidez, Aiarako Foruak eta testamentua egiteko erabateko askatasunak bere horretan jarraitzen dute.

cho Civil Vasco Comentarios breves texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial, Academia Vasca de Derecho- Zuzenbidearen Euskal Akademia, Dykinson, Bilbao, 2016, 105-116. orr.

³² EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, 12/2017 zk., azaroaren 4koa, 11/2017 errete. zk.

4. Ezkontideen eta izatezko bikoteko kideen arteko eskubideak parekatzea

5/2015 Legeak, oinordetza ondoreetarako, legean bertan arauturiko gai guztiei dagokienez, ezkontzako ezkontideen eta izatezko bikoteko kideen eskubideak parekatu egingo direla ezartzen du. Modu horretan, pertsonen arteko bizikidetzaren erabaki mota horiek areagotu izanak eta diskriminazio-egoerak eta eskubide-urraketak saihestu behar izanak ekarri duen gizarte premia zabalari erantzuna ematen dio. Hala ere, Bigarren Xedapen Gehigarriak ezarri moduan, izatezko bikoteei buruz jasotako artikulu bakoitza, Eusko Jaurlaritzak eraturiko izatezko bikoteen administrazio-erregistroan inskribatuta daudenei buruzkoak direla ulertu behar dela, betiere, Eusko Legebiltzarraren martxoaren 7ko 2/2003 Legean ezarritako lege-aginduekin bat etorritz.

Legegileak, 2003ko lege horren 9. artikuluan, izatezko bikoteen eta ezkonduen arteko parekatzea oinordetza-araubideari dagokion guztian sartzea erabaki zuen: «Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilararen uztailaren 1eko 3/1992 Legeak ezarritako ondorioetarako, izatezko bikoteak ezkonduen arteko bikoteen parekotzat hartuko dira».

Gaur egun, ORIBE MENDIZABALEK³³ zehaztutakoari jarraiki, parekatzea hau ondorio guztietarako izatea lortu nahi da. Horrela, harreman motaren eta gizarte-bizikidetzako ereduaren bilakaerari erantzuna emango zaio eta izatezko bikoteei, erabakiak hartzeko eta ezkontideen arteko bizikidetzaren baldintza berdinetan antolatzeko aukera emango zaie.

³³ ORIBE MENDIZABAL, A. «Las Parejas de Hecho tras la entrada en vigor de la ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco», in URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.). *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Eusko Legebiltzarra, RSBAP-EAE, Vitoria-Gasteiz, 2016, 485-504. orr.

5. Oinordetza zuzenbidea

Oinordetzei buruzko araudiari dagokionez, legegileak orain arte ez bezala, bere aplikazioa EAE osora zabaltzen du, euskal auzotasun zibila duten pertsona guztiek beren harreman pertsonalak eta ondarezkoak planifikatzeko legezko tresna berberak izan ditzaten erraztuz. Izatez, hori da legearen funtsezko ardatza, herritar guztientzat oinordetza-eskubide bat formulatzea. Gainera, onartutako arauak, gizartearen eskaerei eta premiei emandako erantzun legegilean, aldaketa handia ekarri dute eta garaia da, arau horien aplikazio eta erabileraren bitartez merezi duten eragingarritasun soziala isladatzeko.

EAEko oinordetza zuzenbidea errealitate sozial berrira egokitzeko araudi berriak, denbora beharko du kontraste soziologiko, ekonomiko eta estatistiko bat lortzeko. Eta kontraste horrek lege berri hauek herritarrentzat baliozkoak eta eragingarriak izan al diren adieraziko digu. Berez, operadore juridikoek herritarrak informatu eta aholkatu ondoren, herritarren eskuetan dago arauak aplikatzea, eta bertan ikusiko dugu beren beharrak asetu diren.

Hasieran aipaturiko eskubide horren funtsezko ezaugarriak dira, foru-zuzenbidearen tradizioari jarraituz, oinordetza-titulu ugari arautzen direla, elkarren artean bateragarriak eta testamentuzko oinordetzari, testamenturik gabeko oinordetzari eta oinordetza-iturari buruzkoak³⁴. Hartara, hiru titulu horiek, hots, testamentuak, oinordetza-iturak eta ab intestato oinordetzak (batez ere lehen biek) ahalbidetzen dute ezkontza edo izatezko bikoteen kasuetan ahalik eta gehien ematea bi bizikide horien artean, horri gehitzen bazaio xedapen askeko zatiaren gehikuntza (2/3) eta elkarri emateko gozamen unibertuala.

³⁴ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa 18. art.

Ildo horretan, testamentua egiteko askatasuna zabaldu egin da, seme-alaben edo ondorengoaren legitimitatearen zenbatekoa jarauntsiko ondasunen heren batera murriztu baita; era berean, senipartedunak honako hauek baino ez dira izango: edozein gradutako seme-alaba ondorengoak eta alarguna edo izatezko bikotekidearengandik bizirik atera den kidea, aurreko senipartedunak desagertu baitira. Honi guztiari, aurretik existitzen ez zen biztantzeko eskubide bat gehitu zaio. Esan beharra dago, azken honek, ezkontide alargunarentzat edo izatezko bikotekidearengandik bizirik atera den kidearentzat erabilgarritasun praktikoa nabarmena duela. Hitz batez esateko, ardatza familiaren lehen lerro horretan jarri eta bizikidetzat lehenetsi da, egungo gizartearen premiei erantzun egokia emanaz, hori baita arauaren eragingarritasuna bermatzea.

Aurrekoak senipartedun gisa desagertu izanaren inguruan, aipatzea da Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko urriaren 6ko ebazpena³⁵. Bertan, notarioak arau juridikoa aplikatzearen alde ebatzi da. Izan ere, aurreko ahaideak jada senipartedun ez direla ezartzen duen lege berria onartu ondoren, azken hauek ez dira ondasun higiezin bat barne hartzen zuen jaraunspena onartzeko eskrituran agertu behar. Horren aurrean, jabetza erregistratzailea, eskritura hori inskribatzearen aurka zegoen. Bere ustez, testamentua lege berria indarrean egon aurretik egin zenez, aurreko ahaideak seniparteduntzat jo behar ziren eta beraz, eskrituran agertu eta seniparteari uko egin behar zioten.

LDCV-ZZEL berrian jasotako ondorengoaren seniparteari gaiari dagokionez (heren batera murrizten da, kolektiboa da eta senipartedunak aukeratu eta baztertu ahal dira), Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak, data hauetan zenbait ebazpen interesgarri eman ditu: 2017ko ekainaren 12an, 2017ko uztailaren 12an, 2018ko abenduaren 20an, 2019ko uztailaren 4an eta 2019ko abenduaren 18an. Modu horre-

³⁵ Estatuko Aldizkari Ofizialaren 255. zk. 2016ko urriaren 21koa.

tan, honakoa nabarmentzen zen: «No se trata de un problema de interpretación de un testamento sino de aplicación de la Ley. A este respecto, la evolución del Derecho Foral de Vizcaya, antecedente indiscutido en la regulación actual del Derecho Civil Vasco, ha sido clara: la Compilación de 30 de julio de 1959 admitía el apartamento expreso o tácito, pero exigía que constara claramente la voluntad del testador de apartar de su herencia a descendientes (artículo 23). Posteriormente, la Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco, mantuvo la misma doctrina y reguló los efectos de la preterición no intencional, dando derecho al preterido a «una cuota igual a la del sucesor de igual grado menos favorecido» (artículo 54). Y la Ley 5/2015, de 25 de junio, actualmente vigente es clara; no exige que conste la voluntad expresa de apartar, y equipara al apartamiento la preterición, intencional o no. La línea evolutiva del Derecho Foral en el País Vasco ha sido constante desde los lejanos tiempos anteriores a la Compilación en que, para salvar la «legítima formal» de los apartados, se utilizaba la fórmula notarial de asignarles a los mismos «un real de vellón, un palmo de tierra y una teja»³⁶.

Hala ere, eta kontrako zentzuan, Gipuzkoako Probintzia Auzitegi-ko Bigarren Sekzioak 2019ko maiatzaren 13ko Epaia eman du, zeinak aurreko ebazpenekiko desadostasuna adierazten baitu eta honako hau adierazten du bere hirugarren OJn: «La Ley 5/15 ha introducido la posibilidad de que el causante transmita la legítima a los legitimarios de su elección, apartando a los demás, pero no ha suprimido la legítima, sino que por el contrario la regula expresamente, determinando su cuantía»³⁷.

Legegileak onartutako arau berria indarrean sartu zenetik aplikatzen da eta honek batzuetan, administrazio-organismoek eta organo judizialek

³⁶ Estatuko Aldizkari Ofizialaren 159.zk. 2017ko uztailaren 5ekoa.

³⁷ Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Epaia, 384/2019 zk., maiatzaren 13koa, 2134/2019 erre. zk.

ebatzi beharreko interes-gatazkak eta auzi judizialak eragiten ditu. Hau, arau juridiko jakin baten eraginkortasun soziala aztertu eta baloratzeko beste elementu bat izango da.

Gainera, arauketa berriak murriztu egiten ditu tronkalekotasun-printzipioak ondasun higiezin baten titularrari besterendu nahi duenean ezartzen dizkion mugak, eta haren ondorioak jada ez dira erabat deuseztasunekoak. Azken hori, GOROSTIZA VICENTEREN hitzetan³⁸, legegileak sartutako berrikuntza garrantzitsuenetariko bat da. Azken batean, eguneratze horren helburua, arrotzei egindako trasmisioetan, gizartea eta familia-ondarea babestea da.

Hala ere, legeak tronkalekotasun-printzipioa tronkaleko ondasunen gaineko jabetza-eskubidearen edukia mugatzen eta taxutzen duen printzipio gidarizat (oinarrizkoa, funtsezkoa) hartzen jarraitzen du. Esanahi horretan, aipatzekoa da EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren 8/2018 Epaia hiru garren OJan dioena: «(...) Y es que, aunque no quepa en la actualidad atribuir a la troncalidad un sentido idéntico al que otrora tuvo, a la vista del cambio y evolución que la familia, la economía y la sociedad han experimentado desde entonces, nada impide seguir caracterizándola: (I) como un principio rector del derecho civil de Bizkaia (...) (II) y también (...) como un principio que delimita y configura el contenido “ordinario” o “normal” del derecho de propiedad sobre los bienes troncales»³⁹.

³⁸ GOROSTIZA VICENTE, J.M. «De la Troncalidad en Bizkaia, Aramaio y Llodio. Disposiciones generales (Artículos 61 a 71)», in URRUTIA BADIOLA A. M. (koord.) *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco Comentarios breves texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, Dykinson, Bilbao, 2016, 103. or.

³⁹ EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, 8/2018 zk., abenduaren 10koa, 22/2018 erre. zk.

Era berean, egokitzen jotzen dira lege berrian tronkalitatearen instituzioa arautzean legegileak egokitutako erabakiak; onibarren, finken edo higiezinaren jabe baten ahalmenak mugatzen dituzten arauak eragiten dituzten ondorioak leuntze aldera, xedatze-egintzak edo besterentze-egintzak egiteko, ezezagunen edo lehentasunik gabeko tronkaleko ahaideen alde, halakotzat jotzen baititu.

Tronkaleko ahaideen eskubideen babesari eusteko, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Bosgarren Atalak 2019ko apirilaren 12an emandako Epaia, tronkaleko ahaidetzat zein hartu beharko lirakekeen ezartzen du bere bigarren OJn: «...conforme a lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 5/2015 de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco “la troncalidad nace desde el momento en que un bien raíz es adquirido por una persona de vecindad civil vizcaína o de los términos de Aramaio y Llodio y se extiende desde ese momento a todos sus descendientes, salvo lo establecido en el artículo 63.3 de esta Ley”, esto es, cuando el bien raíz se adquiere de quien no es pariente tronquero, aunque haya pertenecido anteriormente a alguno de ellos, no se hacen troncales mientras no se transmitan a un descendiente, como sucede en nuestro caso, en que los padres del actor y del causante adquirieron los bienes litigiosos de terceros ajenos, y extendiéndose la troncalidad en la línea descendente sin limitación de grado, salvo lo dispuesto en el artículo 63.3, terminando en la ascendente en el ascendiente que primero poseyó el bien raíz, llegando en la colateral hasta el cuarto grado civil, inclusive, de parentesco»⁴⁰.

Era berean, aurretik, Auzitegi Gorenaren Zibil Arloak 2010eko martxoaren 11n emandako epaiak, tronkaleko senideen eskubideen babesa aitortzen zuen. Bertan, eskubide horien aurkako eskualdatze-unean tronkaleko ondasunen titularrak Bizkaiko auzotasun zibila galtzen zuen kasuei erreferentzia eginez, hirugarren OJn honakoa ezartzen zuen: «...

⁴⁰ Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Epaia, 103/2019 zk., apirilaren 12koa, 345/2018 errete. zk.

por esencia de la troncalidad, la pérdida de la vecindad vizcaína no supone restricción alguna en los derechos y deberes de cualquier naturaleza derivados de la misma (...) Por derechos y deberes debe entenderse las limitaciones impuestas por el principio de troncalidad y la facultad de exigir su efectividad por los legitimados»⁴¹.

Aipagarriak dira, halaber, legegileak sartutako beste ildo edo ezaugarri batzuk, hala nola, jaraunspen-erantzukizun mugatua, legitimazio kolektiboa eta jaraunsele bazterketaren bidez askatasunez aukeratzea, familia-ondarearen batasuna edo ustiapen profesionala babesteko helburua, haren jarraipena bermatzeko. Eta, besteak beste, testamentu-xedapena, testamentu mankomunatua edo ermandadeko testamentua eginez (Nafarroan arautzen den bezala); oinordetza-itunak, kausatzailea hil ondoren ez ezik, aurretik ere ondasunak eskualdatzea ahalbidetzen dutenak; eta beste pertsona bati edo batzuei, komisario deituei, testamentua eskuordetzan emateko dagozkien ahalmenak egikaritzea debekatzea. Kasu horretan, komisario izendatuari luzatu egiten zaizkio jarauntsiko ondasunen gaineko xedapen-ahalmenak, oinordetza-eskualdaketa egin ahal izateko, egintza batean edo batzuetan, eta notario-eskrituran adierazitako denboran eta epean.

Legegileak, onartzen dituen arauetan, herritarren ohitura eta praktikak kontuan hartzen ditu. Batez ere, lege ezarritako epea luzatzerakoan, testamentu-botere batek komisario bati ematen dizkion ahalmenak egikaritu ahal izateko; kausatzaileak komisario horri agindu dionean bera hil ondoren, haren ondasunak eta jarauntsia banatzeko. Eta legeak eskaintzen dituen aukera berriek, arau zibil baten ezaugarriak betetzen dituzte; izaera esku-emailea dute, borondatezkoa da erabiltzea, hau interesdunaren erabakia izango da eta bere beharren arabera aplikatuko du, hainbat egintza edo unetan, eta, horrela, erabilera, balio eta benetako eraginkortasun soziala emango die aruari eta legegintza-jardunari.

⁴¹ Auzitegi Gorenaren Epaia, 111/2010 zk., martxoaren 11koa, 827/2006 erre. zk.

Gauza bera gertatzen da oinordetza-itunen arauketa berriarekin, LD-CV-EZZLren 100. artikuluan eta hurrengoetan arautzen dena. Azzimarragarriak dira, jarauntsiaren kausatzailea bizirik dagoela, jarauntsi baten edo horren zati baten oinordetza-eskubideei uko egiteko oinordetza-itu-nak (100.2. art.), Kode Zibilak ezarritako debekuaren aurrean. Honek, gaur egun ohikoa den egoera bati erreferentzia egiten dio, hain zuzen ere, operadore juridikoek elkarrekin seme-alabak dituzten dibortziatuta-ko edo banatutako bi ezkontideren ondarearen antolaketan edo banaketa-konponbideak eskaini behar dituztenean. Gurasoen aurkako klausula modukoa da eta honek berekin dakar, seme-alaba adingabe erkideei jarauntsian, dohaintzan edo oinordetza-itunean utzitako ondasunak testamentugilea bananduta edo dibortziatuta dagoen aitak edo amak oinordetzan bide horretatik zerbait hartzea. Legeak hori ahalbidetzen du, gizartean dagoen premiari erantzun egokia emanez. Hartara, zentzuzkoa dirudi oinordetza-itunek eskaintzen dituzten aukera horiek gizartean gehiago erabiltzea, batez ere oinordetza-egintza gisa, kostu fiskal edo ekonomiko txikia edo aldekoa badute.

Beraz, hau guztia oinarri harturik, beharrezkoa da euskal ordenamendu juridiko zibil honen izaerari buruzko gogoeta bat egitea, Lege berriak, bere iturri (1.-4. artikulua) eta printzipio inspiratzaileen (5.-7. artikulua) bidez aintzat hartzen duena. Lurralde-aniztasuna kenduta, eta euskal ordenamendu juridiko zibilaren eta, haren barruan, euskal oinordetza-zuzenbidearen ezaugarriak antolatzerakoan, haren edukia sistematizatzeko beharra dago, oinordetzari bereziki eragiten dion euskal sistema juridiko zibila eraikitze lan batean oinarrituta. Horra hor dogmatika juridikoaren lana, antolamendu juridiko jakin bat islatuko duen kokatze sistema bat egiteko orduan. ROBLESen arabera, honela osatuta dago: «Todos aquellos textos que son generados por las autoridades generadoras de preceptos. Por tanto, la determinación de los textos jurídicos que configuran un ordenamiento sólo es posible mediante la previa determinación

de las autoridades generadoras de decisiones que dan lugar a preceptos o disposiciones dotadas de fuerza jurídica, entendiendo esta palabra en su sentido jurídico más amplio y que integra cualesquiera de las modalidades normativas que hemos estudiado: determinar las fuentes o decisiones generadoras de textos potencialmente normativos, el espacio, el tiempo, los sujetos, las competencias, los procedimientos, los poderes y los deberes (de conducta, de decisión y de ejecución). Expresándolo grosso modo podríamos decir que los textos que forman un ordenamiento jurídico son los textos con fuerza normativa»⁴².

Sistema juridiko horrek, oinordetzari dagokionez, oinarri batzuk ditu eta, VALLET DE GOYTISOLOREN arabera, oinordetzaren bide diren erakundeak, kausatzailearen xedapen askearen mugako erakundeak eta oinordetza-tituluak oinordetza-zuzenbidearen printzipio gisa sailka daitezke⁴³. Hala ere, oinarri horiek, oinordetza-fenomenoaren ikuspegi dinamikoa batekin osatu behar dira eta ikuspegi hori, oinordekoaren izendapenetik hasi eta jaraunspen-banaketa eta oinordetza *iter*-aren amaieraraino doan *tempus* osoan zehar⁴⁴. Oinordetza-fenomenoarekiko hurbilketa klasiko hori, LDCV-ZZELaren barruan *ex novo* ezartzen da eta arauketa horrek, estatutu berria dakarkie euskal herritarrei, hots, orain arte hainbat arauketa zibilen mende egon diren horiei.

6. Ondasunen araubidea ezkontzan edo izatezko bikotean

Gai honi dagokionez, legegileak bi egoera horiek arautzeko ezarritako lehen irizpidea ezkontideek eta izatezko bikoteko kideek beren ezkon-

⁴² ROBLES, G. *Teoría del Derecho. Fundamentos de teoría comunicacional del Derecho*. Cizur Menor (Navarra): Editorial Aranzadi, 2015, vol. II, 225-226. orr.

⁴³ VALLET DE GOYTISOLO, J. *Panorama del Derecho de Sucesiones. I Fundamentos*. Madrid: Editorial Civitas, 1982, I. liburukia.

⁴⁴ VALLET DE GOYTISOLO, J. *Panorama del Derecho de Sucesiones. II Perspectiva dinámica*. Madrid: Editorial Civitas, 1982, II. liburukia.

tza-itunetan edo ekonomia- eta ondare-itunetan nahi dutena aukeratze-ko askatasuna izango da. Horietan, beharrezkotzat jotzen dituzten klau-sulak eta estipulazioak zehaztu ahal izango dituzte, bakoitzaren eskubide eta betebeharrak, haustura-kasurako konpentsazio ekonomikoak edo le-gez ezarritako sistema ekonomikoa adierazita.

Askatasun zibilaren printzipioaren beste adierazpen bat bezala ulertu behar dugu, azken hau, euskal erregulazio zibilean, funtsezko ardatza bai-ta; bai oinordetzei dagokienez, eta baita ondasunen araubide ekonomikoa legezko edozein bizikidetzeta-motatan ezartzeari dagokionez ere. Baina ondasunen gaineko akordio ekonomikorik eta araubiderik borondatez ezartzen ez bada, legeak kasuz-kasu ezartzen du zein lege-araubidetan arautu behar den. Ezkontzaren kasuan, ezkontzaren ondasun-eraentza itunik ez dagoenean, Kode Zibileko irabazpidezko sozietateen arauak arautzen dutena izango da aplikagarri, nahiz eta erregimen ekonomikoa euskal zuzenbide zibilak zehaztu eta igorpena egin Kode Zibilaren sis-tema zehatz bati. Igorpen hori dinamikoa da, alegia, aldiak aldiak Kode Zibilak arautzen duen irabazpidezko sistemari egindakoa. Bestalde, izatezko bikotearen kideen artean esanbidezko itunik ez badago, legeak, ordezko gisa, Kode Zibilaren ondasun-banantzearen araubide ekonomikoa eta ondarezkoa ezartzen du. Aurreko erregulazioak, PARAMIO JUNQUE-RA eta PIÑOL OLAETAren hitzetan: «(...) omitía hacer mención alguna al régimen legal de aplicación en defecto de pacto y esta indefinición había causado más de un conflicto»⁴⁵.

⁴⁵ PARAMIO JUNQUERA, N. eta PIÑOL OLAETA, E. «Disposiciones Adicionales, Transitorias, Derogativas y Final», in URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.). *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Academia Vasca de Derecho- Zuzenbidearen Euskal Akademia, Dykinson, Bil-bao, 2016, 219.-237. orr.

7. Zerga-araudiaren egokitzea

Azkenik, interesgarria da 5/2015 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarrian legegileak ezartzen duen aurreikuspena eta agindua nabarmentzea, EAEko araudi zibilaren erabilera eta aplikazioa errazteko asmo argia baitu. Izan ere, araudi hori EAE osora zabaltzen da, eta pertsona askorentzat berritasun bat izango da. Honela dio: «Lurralde historikoetako foru-organismoek, beren eskumenak baliatuz, egokitu egingo dituzte beren zerga-arauek lege honetan erregulatutako instituzioetara».

Administrazio-organismo horien erantzukizuna izango da zergei buruzko foru-arauek eguneratzea eta arau horiek guztiak bateratzea, erakunde zibilei eta horiek aplikatzen dituzten herritarren egintzei dagokienez; jarduketara horien trataera eta kostu fiskala oso alderdi garrantzitsua baita, eta interes handikoa pertsonentzat. Kostu ekonomiko eta fiskal hori, arau zibil bat edo bestea aplikatzearen ondorioz, arau baten eraginkortasun soziala, gizartearen beharrei behar bezala erantzutea eta arau hori nola jaso eta onartu baloratzea ahalbidetuko digun adierazleetako bat ere bada. Arrazoi hori dela eta, euskal legegileak beharrezkotzat jotzen du egokitzapen hori, euskal sistema juridiko pribatuan aldaketa handia egon dela onartu delako eta EAE osoan eragin eta aplikazio handiagoa duelako.

Hiru Lurralde Historikoek legearen agindua bete dute:

- Gipuzkoan: azaroaren 14ko 4/2016 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tributu-sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoa.
- Bizkaian: apirilaren 12ko 1/2017 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoa.

- Araban: irailaren 20ko 18/2017 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko tributu-sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzea.

8. Praxis soziala eta profesionala: Estatistikak

Lan honek oinarri duen arauen eragingarritasuna aztertzeko, beharrezkoa izango da euskal herritar eta eragile juridikoen erabileraren gaineko ikerketa egitea, azken hau legearen praktikotasunaren islada baita. Datu horiek ezagutzeak, aukera emango digu aurreko legeak erregulatutako oinordetza titulu desberdinen erabilpena ikusteko. Hau da, 3/1992 Legeak, Euskal Herriko Zuzenbide Zibil Foralari buruzkoak, euskal zuzenbide zibilean onartuak dauden oinordetza tituluen artean desoreka handia erakusten du. Estadistiken irakurketa soil bat nahiko da argitzeko EAEko lurralde eta biztanleria osoan finkatzeko, ondorengotza-erakundeek egin beharko duten lan teorikoa eta praktikoa eta gizarte-hedapena. Eskuarlean ditugun estatistikak Espainiako Notario Elkargoen indize informatizatuan oinarrituak⁴⁶ daude:

Testamentu irekiak:

	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA
2014	16.342	10.526	4.428
2015	15.936	11.071	4.499
2016	18.154	13.149	5.023
2017	19.399	13.186	5.400
2018	18.571	12.752	5.120

⁴⁶ Índice único Notarial. www.notariado.org (Azkeneko kontsulta 2020ko maiatzaren 4an).

Testamentu mankomunatuak:

	ESTATUA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA
2014	8.493	43	5	2
2015	7.898	42	24	10
2016	7.916	51	111	24
2017	8.536	66	139	14

Oinordetza-itunak:

	ESTATUA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA
2014	7.115	35	0	0
2015	7.709	43	0	5
2016	16.282	55	46	47
2017	17.997	166	90	70

Ab intestato legezko oinordetza:

	2014	2015	2016	2017	2018
ESTATUA	65.980	73.567	79.828	83.841	86.951
BIZKAIA	2.020	2.256	2.740	2.895	2.898

Ondorioak nabarmenak dira. EAEko eragile juridikoez eta herritarrek egungo araudiak eskaintzen dizkigun oinordetza-tituluen erabilera-aren inguruko azterketak agerian uzten du EAEko oinordetza testamentuzkoa dela, oinordetza-itunak gutxinaka-gutxinaka hazten ari direla eta testamenturik gabeko oinordetza, hots, ab intestato oinordetza, subsidarioa dela.

Alde batetik, pertsona bakoitzak bere borondatea, oinordetza-tituluan isladatzen du eta hori notarioaren aurrean emandako dokumentu publiko batean idatzita jasotzeak segurtasun juridikoa ahalbidetzen dio, modu horretan, irtenbide subsidiario gisa geratzen den testamenturik gabeko oinordetza saihestuz. Beste alde batetik, oinordetza-itunetan jasotako borondatea, euskal herritarrek adierazitako testamentu-borondateen artean pixkanaka agertzen ari dela esan dezakegu. Hala ere, EAE osora hedatu den oinordekoa izendatzeko eta ondarea banatzeko aukera horrek denbora beharko du, oraindik ere, bere abantaila zibil eta fiskal guztiak aitortu eta aintzat hartzeko, hots, bere erabilera handitzeko.

Helburu horrekin, profesional juridikoentzat prestakuntza praktikoko ikastaroak antolatzen dira, euskal legegileak onartutako araudi berria aztertzeko eta herritarrek ezagutu eta praktikan aplikatu dezaten errazteko. AVD-ZEAK, Abokatutzaren eta Notariotzaren laguntzarekin, ikastaro eta ikasketa-jardunaldi hauek antolatzen ditu, eta honako hauek nabarmen-tzen ditu bere programetan:

«2015. urtean ezarri zen Zuzenbide zibil beregaina EAEn. Horrek errotik aldatu zituen bertakoen igurikimenak, familia eta oinordetzaren gaineko harreman juridikoak antolatzeko orduan. Hortaz, behar-beharrezkoa da jardule juridikoentzat lege-testu berrien ezagutza eta erabilera praktikoa. Oraingo honetan Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuak, Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuaren, Deustuko Unibertsitatearen, Euskal Herriko erregistratzaileen eta „Pedro Ibarreche“ Praktika Juridikoaren Eskolaren laguntzaz, ahalegin biziak egin dituzte Euskal zuzenbide zibilaren ikastaro praktikoa antolatzeko. Ikastaroa EAeko jardule juridikoei zuzenduta dago eta araubide berriaren alorretan segurtasun osoz jarduteko ezaupideak eta teknika erakustea du helburu».

Labur esanda, beharrezkoa da Lege berria eta testamentu-borondatea adierazteko aukera berriak euskal herritarren artean zabaltzea, azken hauek abantailen berri izan dezaten; orduantxe lortuko baita eskuartean dugun LDCV-ZZELren erabilera eta eraginkortasun sozial handiagoa.

V. GOGOETA ETA ONDORIOAK

LEHENENGOA.- Arau juridikoak botere legegilearen bidez onartzen dira eta gizarteari zuzentzen zaizkio, gizartearen eskaerei eta premiei erantzuteko, haiek erabiltzeko, aplikatzeko eta betetzeko, eta haien eraginkortasun soziala lortzeko.

BIGARRENA.- Legegintza-jarduerak, gizartearen eskaerei eta premiei erantzuteko borondatearekin dihardu, eta horretarako, baliozkoak diren eta betepen eta aplikazioaren bitartez herritarrengandik ondo hartzen diren arau juridikoak onartzen ditu.

HIRUGARRENA.- Euskal gizarteak, XXI. mendeko gizarte batentzako foru arau zibila eguneratzea eskatzen zuen. Horretarako, kontuan hartu beharra zegoen, pertsonak, familiak, harreman ekonomikoek eta enpresek beren ezaugarriak aldatu zituztela eta iada ez zetozeza foru-testu zaharrak eta ordurarte indarrean egon ziren lege-garapenek inspiratu zituzten balio eta printzipioekin bat. Legegileak, araudi berriaren bitartez, egungo familia- eta gizarte-premia berri horiei erantzunak ematea bilatu du.

LAUGARRENA.- Eusko Legebiltzarrak, Euskal Zuzenbide Zibila eguneratzean, bere gain hartu du gizarte premia horri erantzuteko duen erantzukizuna eta legegintza-eskumena, hura kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko konstituzio- eta estatutu-ahalmenaren babesean.

BOSGARRENA.- Askatasun zibilarren printzipioa, araudian islatzen da eta ondarea eta oinordetza antolatzeke orduan, partikularrari erabakiak hartzeke askatasun handiagoa ematen dio.

SEIGARRENA.- Euskal auzotasun zibil berriari esker, EAEko herritar guztiak harreman juridiko pribatuen sistema erkidea erabili ahal izango dute, aukeratzeko askatasun handiagoa duena eta beren borondatean muga gutxiago ezartzen dituen.

ZAZPIGARRENA.- LDCV-ZZEL onartu arteko Espainiako Notario Elkargoen indize informatizatuan oinarrituako estatistikak aztertu ondoren, agerian geratzen da arau zibilaren gainen bai profesionalek eta baita herritarrek egindako erabilera; gehienbat testamentuzko oinordetza erabili izan dutela, oinordetza-itunen gain egon den eragin txikia nabarmena bada ere eta ab intestato legezko oinordetzaren izaera subsidiarioa baztertu gabe.

Modu horretan, arauketa berriak aukera ematen die EAEko herritar guztiari testamentu mankomunatuaren, testamentu-ahalordeen edo oinordetza-itunen bidez oinordetza antolatzeke, senipartea murriztagoa eta kolektiboagoa izanik, besteak baztertzeko ahalmenaren bidez oinordetza hautatzeko aukera ematen duena, eta arau zibil berri horiei egokitutako zerga-araudia izanik. Beraz, aztertutako datuei erreferentzia eginenez, jardun juridikoen eta euskal hiritarrek, gero eta gehiago erabiltzen dutela ikus daiteke.

ZORTZIGARRENA.- Hau guztion konpromisoa izan behar da. Proposamen egokia litzateke, Eusko Legebiltzarrak onartu eta 2015eko urriaren 3az geroztik indarrean eta EAEko herritar guztien eskura dagoen arau juridiko berria gizarte osoak ezagutzea, hartzea eta aplikatzea. Modu horretan, bere beharrei eguneroko jardunean eskaintzen dizkien tresnak eta aukerak erabiliz erantzuteko.

BEDERATZIGARRENA.- Ildo horretan, erakunde publikoek, erakunde profesionalek eta, batez ere, operadore juridikoen beren gain hartu behar dute araua hedatzeko, gizarteratzeko eta gizartean zabaltzeko konpromisoa. Horiek guztiak sistema berria hartu behar dute, eta beren jar-

dun-eremua osatzen duten pertsona, familia eta enpresen eskura jarri behar dute, beren behar juridikoei erantzunak eta konponbideak emateko eta harreman pertsonal eta ondarezko harreman pribatuak antolatzeko. Helburua hau da: onartutako arau juridikoaren existentzia, baliozkotasuna eta erabilera normalizatzea da, egungo euskal gizartearen beharretara egokitu ondoren lege horrek eskaintzen dituen mekanismo eta tresna juridikoak finkatzeko.

HAMARGARRENA.– Jardun eta konpromiso horiek, beren garapen eta *praxis*-a aurrera eramateko denbora behar da eta hare beharrezkoagoa izango da pertsonen harreman pribatuak antolatzen dituen Zuzenbide Pribatuan. Azkenik, estatistika-adierazleen kontraste soziologiko eta ekonomikoa ere kontuan izan beharko da, legegintza-jardunak lortu duen gizarte-eraginkortasunari buruz balorazioak egin, iritzia emateko eta antzinamenduak proposatzeko aspaldikoa den baina bizi-bizirik dagoen Euskal Zuzenbide Zibilaren esparruan.

VI. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

ÁLVAREZ RUBIO, Juan José. «Del ámbito de aplicación de la Ley Civil Vasca (Artículos 8 a II). Ámbito de aplicación territorial y personal de la ley 5/2015: Normas de conflicto y vecindad civil vasca», in URRUTIA BADIOLA, Andrés María (koord.) *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco Comentarios breves texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*. Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, Dykinson, Bilbo, 2016, 33-39. orr.

CELAYA IBARRA, Adrián. «En torno al Fuero y al Derecho Foral», *Selección de Estudios Jurídicos*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1999, 349.-367. orr.

«El Derecho civil y los juristas vascos. Necesidad de crear una Sección de Derecho civil». *Boletín de la Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia Aldizkaria*, 2003, 1.zk., 42-53. orr.

«Hacia una ley civil vasca, Jornada hacia la primera Ley civil vasca». *Boletín de la Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, número extraordinario 4, 2007ko ekaina, ez ohiko 4. zk., 13-32. orr.

COTTERRELL, Roger. «Cumplimiento e invocación del Derecho», *Introducción a la Sociología del Derecho*. Barcelona: Editorial Ariel, 1991, 209. or. eta hurrengoak.

DELGADO ECHEVERRÍA, Jesús. *Notas sobre la eficacia social de distintos tipos de normas civiles*. DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho, 2006, 29. zk., 196-218. orr.

DI LUCIA. *Agire secondo una norma, agire per una norma, agire in funzione di una norma* COMANDUCCI, Paolo eta GUASTINI, Riccardo (koord.) *Struttura e dinamica dei sistemi giuridici*, Torino: Giapichelli ed., 1996.

GOIKOETXEA OLEAGA, LORENZO. «La función social de la propiedad y los principios patrimoniales del Derecho Civil Vasco», in URRUTIA BADIOLA, Andrés María (koord.). *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Eusko Legebiltzarra, RSBAP-EAE, Vitoria-Gasteiz, 2016, 239-271. orr.

«De los derechos troncales de adquisición preferente (Artículos 72 a 82)», in URRUTIA BADIOLA Andrés María (koord.). *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco Comentarios breves texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, Dykinson, Bilbao, 2016, 105-116. orr.

GOROSTIZA VICENTE, JOSÉ MIGUEL. «De la Troncalidad en Bizkaia, Aramaio y Llodio. Disposiciones generales (Artículos 61 a 71)», in URRUTIA BADIOLA Andrés María (koord.). *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco Comentarios breves texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, Dykinson, Bilbao, 2016, 97-103. orr.

NAVARRO, PABLO EUGENIO. *La eficacia del derecho. Una investigación sobre la existencia y el funcionamiento de los sistemas jurídicos*, Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1990.

ORIBE MENDIZABAL, ALKAIN. «Las Parejas de Hecho tras la entrada en vigor de la ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco», in URRUTIA BADIOLA,

Andrés María (koord.). *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Eusko Legebiltzarra, RSBAP-EAE, Vitoria-Gasteiz, 2016, 485-504. orr.

OST, François eta VAN DE KERCHOVE, Michel. *De la pyramide au réseau? Pour une théorie dialectique du droit*, Bruxelles: Publications des Facultés universitaires Saint-Louis, 2002.

PARAMIO JUNQUERA, Nieves eta Piñol Olaeta, Elixabete. «Disposiciones Adicionales, Transitorias, Derogativas y Final», in URRUTIA BADIOLA, Andrés María (koord.) *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco Comentarios breves texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, Dykinson, Bilbo, 2016, 219-237. orr.

ROBLES, Gregorio. *Teoría del Derecho. Fundamentos de teoría comunicacional del Derecho*. Cizur Menor (Navarra): Editorial Aranzadi, 2015, vol. II.

RUSSO, E. *L'interpretazione delle leggi civili*, Torino: Giappichelli ed., 2000.

«Norma imperativa, norma cogente, norma inderogabile, norma indisponible, norma dispositiva, norma suppletiva», *Rivista di Diritto civile*, XLVII, iraila-urria, 2001, 573-600. orr.

TEJERIA OTERMIN, Bakartxo. «Inagurazio hitzaldia», *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Eusko Legebiltzarra, RSBAP-EAE, Vitoria-Gasteiz, 2016, 27-30. orr.

URKULLU RENTERIA, Iñigo. «Inagurazio hitzaldia» *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Eusko Legebiltzarra, RSBAP-EAE, Vitoria-Gasteiz, 2016, 31-35. orr.

URRUTIA BADIOLA, Andrés María. «La sucesión mortis causa en general en la ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco y los testamentos en particular», *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI, de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Eusko Legebiltzarra, RSBAP-EAE, Vitoria-Gasteiz, 2016, 303-341. orr.

VALLET DE GOYTISOLO, Juan. *Panorama del Derecho de Sucesiones*. I Fundamentos. Madrid: Editorial Civitas, 1982, I. liburukia.

Panorama del Derecho de Sucesiones. II Perspectiva dinámica. Madrid: Editorial Civitas, 1982, II. liburukia.

JURISPRUDENTZIA ERANSKINA

1. Auzitegi Gorena

- Auzitegi Gorenaren Epaia, 111/2010 zk., martxoaren 11koa.

2. EAeko Justizia Auzitegi Nagusia

- EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, 12/2017 zk., azaroaren 4koa.
- EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, 8/2018 zk., abenduaren 10ekoa.

3. Probintzia Auzitegia

- Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Epaia, (Bosgarren sekzioa) 103/2019 zk., apirilaren 12koa.
- Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Epaia, (Bigarren Sekzioa) 384/2019 zk., maiatzaren 15ekoa.

4. Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusia

- Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko urriaren 6ko ebazpena.
- Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2017ko ekainaren 12ko ebazpena.
- Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 12ko ebazpena.
- Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko uztailaren 5eko ebazpena.

- Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko abenduaren 20ko ebazpena.
- Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko abenduaren 18ko ebazpena.

ARAU-ERANSKINA

- 1889ko uztailaren 24ko Espainiako Kode Zibila.
- 1978ko abenduaren 29ko Espainiako Konstituzioa.
- 1979ko abenduaren 19ko Euskal Herriko Autonomia Estatutua.
- Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea.
- Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legea.
- Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea.